

Etxalarren, 2021ko urriaren 22an

Kaixo!

Hau irakurtzen baldin bazaudete ZORIONEKOAK zarete: MOTXILA IBILTARIA zuen etxera iritsi da!!!

MOTXILA IBILTARIA honen helburua familiaren irakurzaletasuna bultzatzea da. Horretarako:

- Ikasle bakoitzak aste batez edo bi astez (gelaren arabera) etxean izango du motxila.
- Nola erabili?
 - 1. Aukera: Ikasleak zuei irakurtzea ipuinaren edo istorioren bat.
 - 2. Aukera: Bakoitzak liburu bat hartu eta denak elkarrekin irakurketa saioak egin.
 - 3. Aukera: Gurasoek seme-alabei irakurtzea.
 - 4. Aukera: Anai- arrebek elkarri irakurtzea.
 - 5. Aukera: Ikasle bakoitzak liburu bat irakurtzea.
- Motxila ibiltariaren egunerokoan (koadernoan) zuen iritziak, bizipenak, ideiak ... idatz ditzazkezue.
- Motxila eskolara garaiz itzultzen dela ziurtatu. Horretarako, begiratu dezakezue bertan egongo den egutegian.

ESKERRIK ASKO ETA GOZATU!

En Etxalar, a 22 de octubre de 2021

Hola!

ENHORABUENA!! Ha llegado a vuestra casa LA MOCHILA VIAJERA. Se trata de una propuesta para fomentar la lectura en familia. Para ello:

- Cada alumn@ tendrá la mochila en casa durante una o dos semanas (según el planteamiento de cada aula).
- Modo de empleo:
 - 1ª opción: L@s alumn@s os leen un cuento o una historia.
 - 2ª opción: Cada un@ coge un libro y organizáis entre todos una sesión de lectura.
 - 3ª opción: Vosotr@s les leéis.
 - 4ª opción: Lectura entre herman@s.
 - 5ª opción: Cada alumn@ lee algún libro.
- Os invitamos a escribir en el diario de la mochila viajera vuestras opiniones, sugerencias, vivencias...
- Aseguraos de que la mochila vuelva a tiempo a la escuela. Para ello, podéis consultar en el calendario que hemos incluido en la mochila.

MUCHAS GRACIAS Y A DISFRUTAR!

MOTXILA IBILTARIA

Etxalarko Landagain eskolak, urteak darama “ Motxila ibiltaria “ ekimena aurrera eramaten. Ekimen honek duen helbururik garrantzitsuena, irakurzaletasuna suspertzea da.

Ikasgela bakoitzak bere motxila du. Motxila horretan dauden liburuek, testu mota ezberdinak izaten dituzte (ipuinak, komikiak, alegiak...) eta eskolan jorratzen diren hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta igelesa) idatziak egoten dira. D ereduko ikastetxea garelako, motxilak, euskararen presentzia handiagoa izaten du.

Motxilan liburuak izateaz gain, “ Egunerokoa “ izeneko bertze dokumentu bat ere izaten du. Azken dokumentu hau, ondorengo informazioaz jantzia dago:

- Motxila ibiltariaren agurra
- Familientzat adierazpena
- Motxilaren kontrol orria.

“ Egunerokoa “ elebiz idatzia dago; hau da, euskaraz baita gaztelaniaz ere. Motxilak daramazkien liburuak irakurtzen hasi aurretik, familiek egunerokoa irakurri beharko dute, ekimena era egoki batez bidera dadin.

Ekimen honen berri, ikasturte hasieran egiten diren bileretan, familiei ematen zaie. Bertan azaltzen zaie:

- Motxilaren osaketa zein den.
- Nola landu dezaketen proposamenak ematen zaizkie (ikasleak familiari, seme-alaba zaharrenak anai-arreba gazteenari, guraso eta seme-alabak txandakatuz...)
- Nahi baldin badute, etxean duten libururen bat ere motxilan sar dezakete, bertze familiak goza dezaten.
- ...

Ikasturtero motxila, eskolak dituen liburuekin ornitzen da. Ekimena martxan jartzen da eta agian gerta daiteke, liburu gehiagorekin bukatzea. Lehen aipatu dudan bezala, familiren batek bere aportazioa egin baldin badu. Ekimena bukatzen denean, motxila desegin egiten da eta liburuak liburutegira joanen dira. Familiek sartutako liburuak, itzuli egiten zaizkie edo batzutan eskolan geratzen dira.

Ekimen honek, gelako ikasle kopuru adina aste irauten du. Hau da, ikasle bakoitzak aste betez edukitzen du motxila ibiltaria etxean; beraz zenbat ikasle aina asteko iraupena izanen luke. Astea bukatzerakoan, ikasleak motxila gelara ekartzen du, irakasleak kontrol orria betetzen du, familiak idatzitako edo eta marraztutakoa ikusi / irakurtzen da eta ondorengoari egokitzen zaio.

Batzutan, ikasle kopuruaren arabera edo noiz hasi denaren arabera, bi aldiz etxera eramateko aukera izaten da. Noski, bigarren aukera bermatzen bada, motxilako liburuak aldatzen dira.

Ikasgela bakoitzak bere motxila ibiltaria duenez, anai-arreba kopuruaren arabera, famili bakoitzak ekimenaz gozatzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izanen du.

Arrakasta duen ekimena denez, datozen ikasturteetan ekimenarekin jarraitzeko intentzioa dugu. Pandemian ekimena bertan behera geratu zen.

MOTXILA IBILTARIA

La escuela Landagain de Etxalar lleva años desarrollando la iniciativa “Mochila itinerante”. El objetivo más importante de esta iniciativa es fomentar la lectura.

Cada clase tiene su propia mochila. Los libros que se encuentran en esta mochila tienen diferentes tipos de textos (cuentos, cómics, fábulas...) y están escritos en las tres lenguas que se tratan en la escuela (euskera, castellano e igelés). Al ser un centro del modelo D, la mochila tiene mayor presencia del euskera.

En la mochila además de libros, tiene otro documento llamado “El día a día”. Este último documento contiene la siguiente información:

- Despedida de la mochila itinerante
- Declaración para las familias
- Hoja de control de la mochila.

“ Egunerokoa “ está escrito en bilingüe; es decir, en euskera y también en castellano. Antes de empezar a leer los libros de las mochilas, las familias tendrán que leer el “ egunerokoa “para que la iniciativa se canalice de una manera adecuada.

Esta iniciativa se comunica a las familias en las reuniones que se celebran a principio de curso. Se les explica:

- La composición de la mochila.
- Se les da propuestas de cómo pueden trabajar (alumnos y alumnas a la familia, hijos y hijas mayores a la hermana menor, padres y madres a la hija...)
- Si quieren, pueden meter algún libro que tengan en casa en la mochila para que disfruten las otras familias.
- ...

Cada curso escolar la mochila se viste con los libros que tiene la escuela. La iniciativa se pone en marcha y es posible que se termine con más libros, si como he comentado anteriormente, alguna familia ha hecho su aportación. Al finalizar la iniciativa se deshace la mochila y los libros van a la biblioteca. Los libros introducidos por las familias son devueltos o a veces permanecen en la escuela.

Esta iniciativa dura tantas semanas como alumnos y alumnas haya en el aula. Al finalizar la semana el alumno trae la mochila al aula, el profesor rellena la hoja de control, se ve / lee lo que la familia ha escrito o dibujado y se le entrega al alumna/o siguiente.

A veces, dependiendo del número de alumnos o de la fecha de inicio de la actividad, se puede llevar dos veces a casa. Claro, si se garantiza la segunda opción se cambian los libros de la mochila.

Dado que cada clase tiene su propia mochila itinerante, dependiendo del número de hermanos, cada familia podrá disfrutar más o menos de la iniciativa.

Al ser una iniciativa de éxito, tenemos la intención de continuar con la iniciativa en los próximos cursos. En Pandemia se suspendió la iniciativa.

Kaixo!

Ni motxila ibiltariaren EGUNEROKOA naiz. Espero dut motxilarekin oso ondo pasatzea eta hementxe nauzue idazteko - marrazteko:

- Gehien gustatu zaizuen eta zergatik.
- Gutxien gustatu zaizuen.
- Besteei irakurtzea aholkatzen diezuen.
- Zerbait faltan somatu baduzue...

ANIMO BADA!!!!

¡Hola!

Yo soy el DIARIO de la mochila viajera. Espero que lo paséis muy bien con la mochila. Aquí me tenéis para escribir o dibujar:

- Lo que más os ha gustado.
- Lo que menos os ha gustado.
- Lo que recomendaríais leer.
- Lo que vosotr@s incluiríais...

¡ANIMO Y MANOS A LA OBRA!!!

MOTXILAREN EGUNEROKOA



